

Nik gutxi-gutxi

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2000



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpa*



Nik gutxi-gutxi

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia 13. ipuin lehiaketa

2000

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Imanol Azkue Ibarbia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Ondo gogoan dut igandea zela, jai egun arrunta, normala, ekainaren hasieran. Artean eguraldia hor zebilen ez-baian, duda-mudan udaberriaren eta udaren arteko mugan. Goizekoaz ez daukat oroitzapen berezirik, jaiki orduko komunera joan eta han ikusi nuena besterik ez. Egin beharrekoak bukatu nituenean, ispilu aurrean geldialdia egin nuen neure burua ezagutzeko eta han agertu ziren bi antena antzeko mutur madarikatu haiek, ilajearen apalduaren gainetik zut eta harro, "hemen gaude" esanez eta barre eginez, kalpar deabruok. Ordura arte bezala, berehala eman nien epaia, batere epaiketarik gabea: iturriko uraz busti eta berdindu egingo nituen, momentuz, eta Arantxari esango nion ahal zuenean ilea mozteko, ahal bazen eguerdi hartan bertan, bere amaren etxera joandakoan, han baitzegoen familia guztiak erreskadan erabiltzen genuen ilea mozteko makina.

Igandetan Begoñaren etxera biltzen gara, Arantxaren amaren etxera, bere familia guztia, anai-arrebak, postizoak eta guztion seme-alaba andana. Astegunetan gure etxean, asteburuan gurasoenean, bikote modernoan bizimodua; "Errazena!", esaten dit batek baino gehiagok. Baina gustura ibiltzen da gure amaginarreba, oilategiko oiloa klo-klo-klo, txita guztiak inguruan dituela. Eta guretzat ere gauza ederra da, eseri, bazkaldu, ezpainak garbitu eta beste lanik gabe zutitzea.

Bazkalondo hartan, beraz, siestako gogoan hurbildu eta harrikoa egitetik urruntzeko ordu kritiko horretan, komentatu nuen, bada, ilea moztu beharra neukala. "Neuk moztuko dizut", esan zidan amaginarrebak, sendo erabakita, Arantxari zuzenean begiratzearekin batera. Izan ere, berez ez baitzen lan zaila; ez naiz konplikazioen zale eta ordura arte beti emazteak moztu zidan, makina hartuta, dena berdin-berdin, hiruko neurrian. Amaginarrebaren ustez, ordea, — hori ere— ez zuen behar bezala egiten, batez ere kokote aldean azkeneko ukituak ematean, Begoñaren hitzetan, "errematean", lana luzitu behar zenean, alegia...

Sukaldeko mahai gaina garbitu samartuta eta guztiak alde egin ondoren, amaginarreba eta biok besterik ez ginen geratu han. Beharrezko traste guztiak mahai gainera atera eta Begoñak kamisetaren gainean toalla jarri zidan, lepoan lotuta, urka bilurra sartzen ari balitzait bezala. Eskuan makina hartu, aitaren egin eta tramankuluaren erle zarata isila entzun nuen, lehenengo belarrira hurbiltzen eta gero lepo aldera pasatzen. Kokotan sumatu nuen burdinaren ukitu hotza eta gorantz egiten zuela apur bat. Oihu lazgarri batek eten zuen erle burrunba gozoa.

—Aaaaagggggg!!!!

Ez nintzen mugitu ere egin, ez nintzen gauza izan ezta burua jiratzeko ere, zer gerta ere. Ni, badaezpada ere, kieto.

Amaginarreba zen, bai. Lehenengo pentsatu nuen aparailu zahar hura hondatzen hasi eta kalanbre txarren bat-edo eman ziola, azkenaldian jende gehiegik erabili baitzuen. Burua asko jiratu gabe, kontu handiz, begiak oker-oker eginda, atzerantz egin nuen eta orduan ikusi nuen, atzeko aulkian eserita, makina eskuineko eskuan, ezkerreko eskua ahoa estaliz eta begirada lurrean galduta.

Oihu haren oihartzunean, han agertu ziren sukaldeko lanak egitetik ihesi zebiltzan guztiak.

—Zer da, ama?

Eta ama isilik, hitzik gabe. Behatz erakuslearekin nire burua seinalatuz.

—Ez, ez, ez... —errepikatzen zuen ahapeka, eskuek egindakoa hitzek ezabatu ahal izango balute bezala.

Hura zen koadroa, hura. Amaginarreba txokoko eserlekuan burumakur, eskuartean burua, aieneka, ia-ia malkoa begietan. Ikusten nituen Arantxa, koinata eta gainerakoak atzealdera hurbiltzen eta barrezka hasten. "Zer? Zer?" galdetzen niela uste dut, eta haiek aurrealdera etortzen zitzaizkidan, barreari ezin eutsirik, ezer ere ez zela esanez, baina bizkarra eman orduko haien karkailak entzuten nituen. Nik, berriz, artean ez nekien zer gertatu zen eta hor nenbilen zer egin ez nekiela, barre edo negar. Kaguenlamar.

—Barre ez behintzat, barre ez! —oihu egin zuen amaginarrebak, suminduta—. Zuek zer zarete, bada, tuntunpaalak? Hau ikusi eta barre egin? Dekebais! Faborez! Faborez! —oihu egin zien, haserreak pena gailenduta, alaben jarrera trufariak minduta.

Azkenean, batek "kristoren" esan eta besteak "sarraskia", jakin nuen zer neukan kokote aldean: "kristoren sarraskia". Amaginarreba akordatu zen aitaren egiteaz, baina ahaztu egin zitzaion makinari behar bezalako plastikozko orrazia jartzea, mozteko neurria, alegia. Horregatik, batere neurririk jarri gabe, makina "0" zegoen eta lehenengo sarraldian marka ederra utzi zidan atzealdean, Amazoniako oihana zeharkatzen duten autopista zuzen-zuzenenak bezalakoak, soilune zuri-zuria ilearen belztasunean. Hori esan zidaten behintzat, koinatak.

Guztiak lasaitzen saiatu nintzen. Neu, bai, kaltetu nagusia. Batez ere amaginarreba, esanaz minik ez neukala, behintzat, eta ez zela hainbesterako, okerrago zatekeela kalanbrazo batek jo eta seko geratzea hantxe, sukaldearen erdian. Gero konturatu nintzen, ordea, hitz haien bidez zerbait nahi baldin banuen, neure burua animatzea zela.

Barreak, tristurak, haserreak... guztiak baztertu eta zerbait egin beharra zegoen, ezin genuen arratsalde osoa egoera barregarri edo penagarri hartan eman. Nola edo hala, hura konpondu beharra zegoen. Hurrengo egunean lanera azaldu beharko nuen, itxuroso gainera. Eta kalera ere bai. Banekien ez zela ezer ere, estetika kontua besterik ez, baina nola moldatu behar nuen eguneroko bizitza egiteko? Nire hurbileneakoak nire bizkarretik barrez lehertu baziren, zer ez zuten egingo begitan hartuta nindutenek? Zerbait egin beharra

zegoen, eta azkar gainera. Hona hemen une hartan eskura neuzkan konponbideak, laburbilduta:

a) Mozketa erradikala: Konponbide hau koinatuak aholkatzen zidan. Ilea "zero" moztu, guzti-guztia, nahiz eta, a zer kasualitatea!, berak parabolikak ezkutatzeko-edo atzealdean ilea luze eraman. Esan zidanez, modan omen dago zeroan moztea, gero eta jende gehiago ikusten omen da eta zenbait pertsonaia ospetsu ere hor non neuzkan, kirolariak edo aktore oso ezagunak, adibidez. Nik, ordea, ez neukan batere garbi. Hura lotsa, billarreko bola bat bezala; kolean makina bat karanbola egingo zituzten nire kontura!

b) Nola edo hala disimulatu: Erraza, koinataren hitzetan, abildade apur bat baino ez omen zen behar: nire ile kolorearen antzeko betuna hartu eta plisti-plasta eman, ondo eman ere, brotxa baten bidez, inguru guztian. Proba ere egin zidan, eta egia esan, urrutira ez omen zen igarri ere egiten, ilea baneuka bezala omen zen. Baina zer egin behar nuen, inoiz bizkarrik eman ez? Beti ere distantziak neurtzen ibili, inor ere gertura ez zedin? Zer gertatuko zen norbait ni konturatu gabe bizkarraldetik gehiegi hurbilduko balitzait? Eta beroa edo izerdia zela kausa betuna urtzen hasten baldin bazen?... Kokote aldea ez nuen ikusten, ezin nuen kontrolatu eta gerta zitekeen ni lasai asko ibiltzea eta atzean betunezko "koadro" hura guztia agerian egotea. Berehala gogoratu nintzen zeinen barregarri geratzen den, adibidez, pelukina daramana, mugitu zaiola konturatzen ez denean.

c) Lanean baja hartu eta denboraldi batean etxetik ezertarako ez irten: Nahikoa erraza, itxuraz. Badauzkat sendagile lagunak eta horietako norbaitek erraz zuzenduko lizkidake bajako paperak. Astebetean edo bian batere ez azaldu institutura, harik eta zuriune hartan ile mutur beltzak agertu arte. Allakuidaos! Baina zer egin behar nuen, denboraldi hura oso-oso etxetik irten ere egin gabe pasatu, beti ispiluari begira, metroa hartu eta egunero zenbat hazi zitzaidan neurtzen? Hori ere ez nuen nahi, bada.

Azkenean, Arantxak eman zidan soluzioa. Uste dut, gainera, asmatu egin genuela eta ezin hobea zela une hartan, kalerako eta konponbiderako ateak zabaldu baitzizkidan. Belarriko infekzioa neukala esango nien guztiei eta txapel batez burua estalita azalduko nintzen lanera, medikuak belarria astebetean ondo tapatzeko agindu izan balit bezala. Behin denbora pasatu eta ilea hazten zitzaidanean, ikusiko genuen nola txukundu.

Zer egingo genuen erabakita, lehenengo eta behin geratzen zitzaidan ilea behar bezala moztu beharra zegoen. Ez nintzen ausartu amaginarrebari eskatzen, auskalo nolako esku pultsua izango zuen-eta. Ezer esan gabe, Arantxak makina hartu, hiruko orrazia jarri eta di-da egin zizkidan egin beharrekoak. Berriz ere begiratu genuen nola geratzen zen atzealdea, "sinadura" apur bat gutxiago igarriko zelakoan; baina, ez, han jarraitzen zuen.

Agurtzeko ordua iritsirik, baten eta bestearen aholkuak entzun behar izan nituen, algara artean. "Etorriko da ziaboga, etorriko denez", pentsatu nuen neure baitarako, baina ez nuen ezer esan. Ordurako ilunduta zegoen kanpoan eta disimuluan, atzeko kaleetatik eta inorekin hizketan geratu gabe, erraz iritsi ginen etxera.

Nahikoa lan izan nuen txapel egokia topatzen. Eta ez zen, bada, gure etxean gutxi zeudelako, ez. Hau handiegia, hori itsusiegia, beste hura beroegia, honek ez dizu ezer tapatzen... Azkenean artilezko urdin ilun bat aukeratu nuen.

Hasieran neu ere beldurtu nintzen ispiluaren aurrean neukan trazaren aurrean, kalashnikova bakarrik falta baitzitzaidan gerrillari txetxeniarra izateko. Baina gero ohitu nintzen eta azkenerako —batez ere Arantxaren pare bat losentxa eta hitz gozoren ondoren— guapo eta guzti ikusten nuen neure burua. Prest nengoan, bada, denboraldi batez "txanour dintxo" izateko.

Ez zen berehalakoan pasatu aste hura. Kanean nahikoa ondo disimulatzen nuen goizetan, artean batzuetan fresko samar egiten baitzuen. Baina eguerdian, egun argiaren eta eguzkiaren berotan, ekainean... Hura sufrimendua, hura kalbarioa, hura zen izerdi beroa eta hotza bota beharra.

Gogoan dut nolakoa izan zen astelehena, lanera azaldu beharreko lehen eguna. Institutura iritsi eta denak harrিতта begiratzen zidaten, sekula txapelik erabiltzen ez zuena horrela azaldu zenean. Are gehiago irakasle gelara sartu eta klasera joateko ere kentzen ez nuenean. "Zer egiten duk txapela jantzita? Nora hoa, elurretara?". Eta ni, hasieran, buruz ikasita eraman nuen sendagilearen esplikazioa gora eta behera. Baina azkenerako nazkatu eta benetan gertatu zitzaidana esaten nien. "Begirazak/n kokote aldea". Eta beti berdina entzun beharra: "Nork egin dik triskantza hori? Txukuna amaginarreba daukak! Hobe horrekin onean konpontzea".

Ikasgelara sartu eta irribarreak sumatu nituen, gero barreak, batzuetan algarak ere bai, zarata gero eta handiagoa egiten ari zela iruditzen zitzaidan. Eta nik, badaezpada ere, aurrea hartu eta inork ezer galdetu aurretik, nire azalpentxoak ematen nien, alegia, banekiela ez dela itxurosoa etxe barruetan eta toki estalietan txapela jantzita ibiltzea, baina belarriko infekzioarekin ibili nintzela asteburuan; min aldetik okerrena pasatuta nengoela, baina sendagileak esan zidala belarria bero-bero mantentzeko, bestela ez zitzaidala behar bezala sendatuko eta ondorioak geratuko zitzaizkidala. Eta txapela azpian ezer ez nuela ezkututzen erakusteko-edo, tartean mesfidati franko baitzegoen ikasle gaixto haien artean, aldian behin arbelaren aurrean jartzen nintzen, ikasleei begira, eta txapela kentzen nuen, ilea harraskatzeko, hazkura ikaragarria eragiten baitzidan ustez gozoetan gozoena zen artilezko txapel urdin handi hark.

Nik nahi baino motelago, baina pasatu zen denbora eta egunak, ordea, eta nabaritu nuen ile puntak irteten ari zirela. Iritsi zen unea. Amaginarreba mindu gabe, baina benetako pelukero batekin adiskidetzeari komeni zitzaidan.

Herrian makina bat ile apaindegi dugu, denetarikoak: modernoak, zaharrak, garestiak, merkeak, pelukero hiztunak, isilak... Nik, ordea, zalantza handirik gabe, hara joatea erabaki nuen. Agian sarritan pasatzen nintzelako aurrealdetik eta beti nire atentzioa erakarri zuelako ate erdi zabaldu hark, beti norbait eserita, ilea mozten.

—Gutxi-gutxirengana? —esan zidan, Arantxak, hasieran barrea ezpainetan eta gero aho beteko barre algara erakutsiz.

Bai, Gutxi-gutxirengana. Horrela deitzen zioten herrian, bai, eta banekien zergatik, gainera: moztu ondoren beti ile gutxi-gutxi, motz-motz utzi ohi zuelako, alegia, ia-ia Atilaren zaldia gogorarazteko moduan... Baina neure artean pentsatzen nuen ilea moztera joaten dena horretara joaten dela. Marabillaren bat egitea nahi zuenak bazekien zer egin: joan zedila Llonguerasenera, horrela deitzen baitzioten herrian, gaitz-asmoz, adarra jotzeko, gazte batzuek zabaldu berri zuten ile apaindegi hiper modernoari. Han ilea moztu eta txukundu ez ezik,

belarritako zuloak egin eta belarritakoak jarri, piercinga egin, tatuatu eta beste hamaika gauza ere egingo zizkioten. Bai, banekien Gutxi-gutxi zela, zaharra zela eta agian ilea moztekoan bere pultsua ez zela izango duela 30 urte bezalakoa. Baina berdin zitzaidan. Hartua nuen erabakia, konbentzimendu eta gogo osoz, gainera.

Beraz, astelehen arratsaldean, "sendagileak baimena eman ondoren", txapel urdina artean jantzita, zuzen-zuzen ile apaindegi hartara joan nintzen. Ate aurrealdean jarri eta kanpotik begiratu nuen: erakusleho txikia, "Peluquería Antonio" zioen egurrezko kartel zaharkitua... Gehiago hurbildu eta ate erdi zabalduetik duda-mudatan egon nintzen, sartu edo beranduxeago joan, agian ordua (seiak) aproposena izango ez zelakoan. Barrura egin nuen, ordea, eta ate hartatik aurrera egitearekin batera, iruditu zitzaidan denboran atzera egin nuela, urte asko, nik nituenak baino gehiago.

Artean kanpotik barrurako argi aldaketara ohitu gabe, sartu orduko aurrez aurre bere begiradarekin egin nuen topo, bezeroaren kopetako ileak txukuntzen ari baitzen, ateari begira.

—Bai? —esan baino, keinuaz galdetu zidan, harrituta ziur aski, hain gazte izanik nola joan nintzen ile apaindegi hartara.

—Ilea txukundu nahi dut. Astirik ba al duzu?

—Bai, eseri hor —erakutsi zidan eserlekua, eskuan guraizea zuela— oraintxe bukatuko dut-eta.

Albo batean zegoen egurrezko aulki aldera egin nuen eta aldizkari bat hartu nuen pilotik. Behin eseritakoan, ordea, irakurketa baztertu eta nahiago izan nuen txoko guztiak miatzea, non nengoen jabetzeko. Gela ez zen oso handia eta erdi-erdian bi jarleku zeuden, larru edo larrua imitatzen zuen plastikozkoak, beltzak, ispilu handi bati begira. Baten inguruan ari zen lanean Antonio eta bestea hutsik zegoen. Ispiluaren ertzak maizten hasita zeuden, kolorgetzen, eta aurrealdean entzimerak antzeko bat zegoen. Haren gainean, lanerako tramankulu guztiak, txukun eta erabilgarri jarriak, zuzen elkarren ondoan, formazio militarrean bezala, lanari ekiteko prest zeuden guraizeak, orraziak, kuartzeroak, bizar xaflak, ukenduak, talkoa, gomina... Entzimerak azpian, berriz, bi haur bizikleta, Antonioren ilobenak-edo ziur aski. Hain zuzen ere, atentzioa deitzen zuten kolore biziarengatik. Izan ere, ile apaindegiko beste gauza guztiak bi koloretakoak ziren, argiak edo ilunak: horma zuria, eserleku beltza, goiko sabaitik zintzilika begira neukan fluoreszentearen argi zurixka, lurreko baldosa grisak... Bazirudien antzinako zuri-beltzeko argazki bat neukala aurrealdean, mende hasierakoa-edo. Iruditu zitzaidan denak zeukala han istorioren bat, hitz egiterik izango balute hango objektu guztiek emango luketela euren antzinatasunaren berri.

Kiskiskiskis. Isiluneetan guraizeen lan mutua hedatzen eta nabarmentzen zen ile apaindegi guztian, bezeroaren eta pelukeroaren arteko elkarrizketak etena edo lagundua. Ez zegoen ez telebistarik, ez irratirik.

Antoniori begiratu nion. Behin baino gehiagotan ikusia nuen kalean eta ezagutzen nuen, baina oraingoan, mantal zuria jantzita, desberdin ikusten nuen. Hirurogeiak bueltatuak izango zituen, ilea urdintzen hasia zuen, baina artean belztasunari eutsiz; betaurreko txikiak (gertuko lanak egitekoak, gainetik urrutira begiratzen uzten duten horietakoak) zituen eta esku azkarrak, oso azkarrak. Erdaraz ari zen hizketan bezeroarekin. Herrenkako gaztelania, baina

nahikoa; nola edo hala, beti isildu gabe aurrera, elkar ondo ulertzeko nahikoa. Bezeroak, berriz, Extremadura aldeko hizkera irmo, lehor eta itxia zuen.

Segituan gogoratu nintzen amak ere, gure herrian, antzeko ile apaindegi batera eraman ohi ninduela, eskutik helduta, eta han ere motz-motz mozten zidala ilea pelukeroak. Osaba Santik, kalean ikusitakoan, "Horrela behar dik mutilak, horrela!" esaten zidan eta zapla!!!! jotzen zidan kokotan eta igurtzi batzuk egiten zizkidan lepo atzealdean. Berotasunak eta gorrituak ordu laurden irauten zidaten.

Halako batean, ia ohartzerako, iritsi zen nire txanda eta eseri nintzen aulkian. Zer egitea nahi nuen galdetu zidan.

—Hau konpontzea, ahal bada —erantzun nion, txapela kendu eta kokote alde erakustearekin batera.

Bere aurpegiak zer bisaia hartzen zuen begira zain egon nintzaion, baina alferrik. Ez zuen batere zirkinik egin. Itxuraz, ohituta zirudien horrelakoak ikusi eta konpontzera.

—Eseri hemen, ahal duguna egingo dugu-eta.

Besterik ez zidan esan. Ez zen harritu, ez zidan barrerik egin. Eta hori bihotzez eskertu nion.

Izara antzeko oihal zuri garbia atera zuen apal batetik eta gainean jarri zidan, lepoan korapilatuta. Ilea mozten hastea eta hitz egiteari ekitea biak batera gertatu ziren: eguraldi zoroa gora eta beroa behera, aurtengo udaberria eta mendi kontuak. Kontatu zidan, adibidez, nola hasi zen lanean, astegunetan porlan lantegian eta larunbat arratsaldetan inguruko auzoetara, ilea moztera, aitari laguntzen. Ni gero eta gusturago nengoen, haren etorriari abegi eginez.

Ispiluan neure buruari begira ari nintzela, ezkerraldean zuri-beltzeko argazki bat ikusi nuen, markoaren eta ispiluaren arteko zirrikituan sartuta. Lau gazte ageri ziren zuriz jantzita, aurpegiera serioak kamerari begira, frontoian. Eskuak atzealdean elkartuta, ipurdi gainean. Argazki zaharra zen, ez bakarrik horituak zeuzkalako ertzak; ikusi besterik ez zegoen lau haien orrazkera, arropak... Berehala ezagutu nuen Antonio bera, gaztetan, hogeitau urte-edo zituela.

Argazkiari begira ari nintzela harrapatu ninduen.

—Ezagutzen al dituzu? —esan zidan, mozketa utzi gabe, begiak argazkiari so.

—Zu bai, ezagutzen zaitut. Baina besteak...

—Ene, normala ez ezagutzea. Argazkiak baditu berrogei urte... gehiago, berrogeita zazpi, juxtu. Zu, gainera, ez zara hemengoa ez?

—Ez... —ez zidan azalpen gehiago emateko edo jarraitzeko aukera izpirik ere utzi. Abiada handia hartua zuen eta orain nor sakatu hari freno!

—Banengoen, bada, ni, banengoen, bada... —eta ilea mozten zuen bitartean bere solasaldia luzatzen zuen—. Nire eskuinekoa Felix Erkoreka duzu. "Arrio" zena. Ez al duzu inoiz bere izenik entzun? Beno, zu gaztetxoa zara, eta, gainera, kanpoko baldin bazara... Oso pilotari ezaguna izan zen bere garaian, zinkuentako bueltan. Duela sei hilabete hil zitzaigun, oinazetan, erraiak

jan zizkion minbiziak ahituta. Hil aurreko astean egon nintzen berarekin, bisitan. Ordurako ez zen ohetik jaiki ere egiten, ez zen ezertarako gauza. Azala eta hezurra ere bat ziren, aurpegi masaillean ez zitzaion haragirik geratzen, ezta irribarre egiteko ere...

Lipar batez eskuak gelditu egin ziren eta bere begirada ispiluaz haraindi joan zen denboran, oroimenean, lagunarengana, baina berehala itzuli zen pelukeriara. Argazkira hurbildu eta orraziaz adierazi zidan nor zen bakoitza.

—Hau, berriz, Manolo Esnal, eta ondokoa Jesus Mari Aramendi. Biak hemengoak. Jokatu genuen eskuz binakako finalekoa da argazkia, partida hasi aurretik ateratakoa.

—Eta, zer egin zenuten? —galdetu nion, jakin-minez.

Burua balantzaka mugitu zuen, alderik alde. Atzera nire albora bueltatu eta mozketari ekin zion berriz ere.

—Galdu. Besteak gehiago ziren. Gu ez ginen makalak, baina haien aldean...

Ez nuen behartu nahi porrot haren oroitzapena gogoraztera.

—Baina pilotan ez du beti onenak irabazten. Begira, kontatuko dizut istorio bat, argazkian nire alboan dagoenarena, Arriorena, seguru gustatuko zaizuna. Garai hartan, argazkiko denboraz ari naiz, ez zen orain bezala. Igandetan beti ikuskizunen bat egoten zen plazan, edo pilota partidak frontoian, edo bailea, edo nik zer dakit... Orduan ez ginen bizi orain bezala, geure baitan bilduta, bakoitza berean. Gauza onak eta txarrak partekatu egiten genituen lagunekin, familiarekin, eta axola zitzaigun, benetan, albokoari zer gertatzen zitzaion. Ez zen orain bezala: telebista lagunik onena eta tontoena, alajaina! Beno, bada, istorio honetako igande hartan pilota partidak ziren frontoian. Ikuskizun bikaina herritarrentzat. Tartean gure Arrio, Zumarragako pilotari ospetsu baten aurka, Solozabalen kontra, buruz buru. Itxuraz, zumarragarra askoz hobea zen, partidari ez omen zen izango kolorerik, markagailua itxuratzen ere nahikoa lan izango omen zuen gureak, hainbestekoa baitzen bien arteko aldea. Frontoia gainezka, hemengo jendea nagusi. Hasi da partida eta, beno, Zumarragakoa ezker-eskuin, goi eta behe, nagusi, nabarmen gainera. Arrio alde batetik bestera pilotaren atzetik korrika bizian eta izerdi patsetan, baina alferrik, beti berandu iristen. Ezin tantorik egin. Halako batean, tantoa galdutakoan eseri da Arrio jarlekuan, arnasa hartzeko, eta eskatu du limonada egarria kentzeko. Han inguruan inon limonadarik ez eta joan dira alboko tabernara. Ekarri diote, bada, eta edan du Arriok, lasai-lasai. Ez ase, ordea, nonbait, eta bukatutakoan gehiago eskatu. Solozabal urduri jartzen hasi eta Arrio gero eta lasaiago. Edan du bigarren limonada Arriok trankil, patxadaz, batere presarik gabe, patarra edaten ariko balitz bezala. Solozabal, berriz, kakalarririk, juezari esanaz hura ez zela posible, zerbait egiteko, Arriok mugitu beharra zeukala. Juezak Arriori tira, nahikoa zela, baina zutitu zenean, lehen pausoa ematearekin batera, hara non zaintiratua sentitzen duen belaunaren atzealdean eta herrenka hasten. Berriz ere jarlekuan eseri eta lagun bat hasi zitzaion masailak ematen. Azkenean, hamar minutu geroago, hasi dira jokatzen berriz ere... Eta hura da partida zuritik beltzera pasatzea. Solozabalek inola ere ezin asmatu eta Arriok, berriz, dena ondo, tantoa tantoaren atzetik, erreskadan; tartean, beti ere, geldialditxo bere limonadatxo edateko, hauspoa baretzeko eta hanka-pilotak lasaitzeko, masaje eta guzti; Solozabal, berriz, gero eta suminduago, haserreago, bere

onetik irtenda erabat. Jendea ere Arriorekin, noski, pozak zoratzen, herrikoa hain itzal handiko pilotaria mendean hartzen ari zela ikusita, eta gure Arrio pilotari baino gehiago torero sentitzen zen. 22-15 irabazi zuen. Han alde egin zuen presaka Solozabalek, gerriko gorria kendu ere egin gabe, aldatu gabe, korrika, norbaitengandik ihesi balihoa bezala. Gero jakin genuen, ordea, tren geltokira joan zela, trena hartzeko asmotan. Garai hartan, seme, ez baitzen orain bezala, oso jende gutxik baitzuen autoa alde batetik bestera joateko. Baina arineketan ibiliagatik, azkeneko trena ere galdu egin zuen eta herrian geratu behar izan zuen hurrengo goiza arte. Bada zoritxarra, ezta? Partida galdu eta, gainera, ezin alde egin porrotaren lekutik. Horra nola irabazi zuen partida Arriok, ustez txarragoa izanagatik. Presa ez da izan inoiz bidaide ona, eta hori bazekien Arriok. Hark jakin Zumarragarako trenen ordutegiaren berri eta argia izan, malizia handikoa. "Presa al daukak? Egon hadi, bada, zain!" pentsatuko zuen. Eta baita egin ere. Beno, bukatu dut.

—Oso istorio polita —esan nion.

—Bai, baina ileagatik esaten nizun. Bukatu dut. Nire ustez txukundu samartu dizut. Itxuroso utzi dizudala uste dut.

Ispilu txiki bat hurbildu zidan atzealdera, egindako lana erakusteko. Egia zen. Garbitu ederra eman zidan. Ile gutxi-gutxi geratzen zitzaidan, baina han ez zegoen aurreko astean egindako triskantzaren arrastorik. Nire atzealdeak ez zeukan inongo bekaturik. Egindako lana ontzat eman eta zenbat zen galdetu nion. Karteratik dirua atera, ordaindu eta bueltarik ez itzultzeko esan nion, kafea edo nahi zuena hartzeko neure kontura, ongi merezia zuela-eta. Gustura nengoen, ilearena konpondu nuelako ez ezik, oso istorio polita entzun nuelako ere bai. Eskerrak eman nizkion eta ateraino lagundu zidan.

—Beno, bada. Nahi duzun arte... —utzi zuen amaitu gabe esaldia, azken hizkia behar baino gehiago luzatuz, bukatu nahi baino ezin.

—Unai, Unai Solozabal. Jaiotzez Zumarragakoa naiz, baina duela urtebetetik hemen bizi naiz, ezkondata.

Begira-begira geratu zitzaidan, galdera egin-ez egin, duda-mudatan.

—Aita nuen, bai, Solozabal II.a. Lasai. Hurrengoan ere etorriko naiz, inolako estropiziorik gabe, espero. Adio.

Atean utzi nuen Antonio, harrituta, zur eta lur. Nire bizkarrari begira ari zela sumatu eta, jiratuta, irribarre egin eta agur egin nion eskuaz. Hark ere berdin erantzun zidan.

Amak esanda, banekien ezkondu aurretik aita herriz herri ibilia zela, maila txukunean, gainera, eta banekien honantz ere askotan etorria zela pilotan jokatzera. Inoiz ez nuen entzun istorio hura, ordea. Agian zahartzarora iritsi aurretik zendu zitzaigulako aita, artean gazte zenean, bizitakoaren errepasoa egin eta kontatu beste lanik geratzen ez den adin horretara iristeko dezente falta zitzaiola.

Kalean aurrera nindoala eskua pasatu nuen buruan, gora eta beheara, ile moztu berri tentearen zitzada atsegina sentitzeko. Are gozagarriagoa egin zitzaidan, ordea, nire baitan, deskubritu berri nuen giroaren xarma eta magia, istorio entzun berri hark zekarren etorkizun kilikagarria.

Harrezkero, Antonioren pelukeriatik irten nintzenetik, iragan dira bi hilabete. Ezin esan aparteko gauza handirik gertatu zaigunik denboraldi honetan. Lana, asteburutan ahal duguna... Nobedaderik ez. Gaur goizean, ordea, esnatu eta komuneko buelta egiterakoan ispilu aurrean jarri naizenean, hor ikusi dut, azkenean ere, tente eta erronkari, kalparra. Irribarrea irristatu zait ezpain ertzetik.